BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

4544

EBAZPENA, 2013ko urriaren 8koa, Hezkuntzako sailburuordearena, Irale programan parte hartzen duten euskaltegiei 2012-2013 ikasturtearen bigarren txandako ikasleen matrikula-gastuak ordaintzeko dena.

Irale programa arautzen duen 1994ko urtarrilaren 28ko Aginduak (1994ko otsailaren 11ko EHAA), Hezkuntza Sailburuordetzaz kanpoko klase-emankizunez diharduenean, honela dio bere 23. ataleko 4. pasartean: Hezkuntza Sailburuordetzak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian jakinaraziko du, aldiro-aldiro, ekitaldi jakin batean Irale programan parte hartzeko onartzen diren ikasketa-elkarteen zerrenda.

Eginbide hau zuzen eta garaiz burutu ahal izateko, Hezkuntzako sailburuordearen 2012ko uztailaren 11ko Aginduak (EHAA, 2012ko abuztuaren 24koa) 2012ko udarako eta 2012-2013 ikasturterako Irale programaren Hezkuntza Sailburuordetzaz kanpoko ekitaldiak (konkretuki, irakastorduz kanpokoak) jakinarazi zituen, eta beraien mamikuntzan parte hartu nahi duten ikasketa-elkarteentzako deialdia zabaldu.

Agindu horren ondorioz ebazpen bi jakinarazi ditu, biak 2012ko urriaren 8koak (EHAA, 2012ko azaroaren 2koa), Hezkuntza sailburuordeak: bata, Iraleren 2012ko udako klase-emankizunetan parte har dezaketen ikasketa-elkarteak onesten dituena, eta bestea 2012-2013 ikasturtean Irale programaren Sailburuordetzaz kanpoko ikastaro-emankizunetan parte har dezaketen

Ebazpen horiek, beren xedapen gehigarrietan, material-prestakuntza eta zenbait kasutako joan-etorri gastuak ere zehatz arauturik dituzte.

Horren guztiaren garapenez, 2012-2013 ikasturtearen bigarren eta hirugarren hiruhilekoetan hainbat klase-emankizun burutu dute kasuan kasuko ikasketa-elkarteek. Emandako klase-emankizunak ordaintzea dagokio, beraz, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari. Hori dela-eta, honako hau

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Ebazpen honen eranskinean zehazten diren euskaltegi eta ikasketa-elkarteei bertan adierazitako diru-kopuruak ordaintzea, 2012-2013 ikasturtearen bigarren txandako matrikula-gastuak estaltzeko.

AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENEGOA

Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsoa jarri ahal izango da Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren aurrean, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara ematen den egunaren hurrengotik hasi eta handik hilabeteko epean.

AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA

Bigarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den unetik izango da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko urriaren 8a.

Hezkuntzako sailburuordea,
MIREN ARANTZA AURREKOETXEA BILBAO.

ERANSKINA

ARABA

EUSKALTEGIA	DIRU-LAGUNTZA
Udaberria elkartea	394,45
Hegoalde euskaltegia	1.272,84
Asociación Cultural Ardatz	6.326,10

GIPUZKOA

EUSKALTEGIA	DIRU-LAGUNTZA
Urretxu-Zumarragako Udal Euskaltegia	2.080,00
Legazpi 6 euskaltegia SL	16,20
Gernika XXI, SL	259,20
Ilazki euskaltegia SCL	2.214,00
Euskaraz Koop. E.	12.399,30
Ebete-Hizkuntza Zerbitzuak	26.673,74
Emun Koop. E.	23.374,11
Maizpide Euskaltegia-Lazkao	5.145,18
Urtxintxa Eskola-Gipuzkoa	2.553,15
Soziolingüistika Klusterra Elkartea	1.080,00
Mintzola Fundazioa	2.686,46
Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioa	52.830,96

BIZKAIA

EUSKALTEGIA	DIRU-LAGUNTZA
Aula de cultura de Getxo (Getxoko UE)	297,50
Sestaoko UE	633,92
Basauriko UE	451,56
Muskizko UE	351,75
Orixe Euskaltegia SAL-(Mikelats-Bilbo)	1.747,20
Gabriel Aresti-Txinta Koop.	17.893,60
Euskaraz Koop. E.	11.124,45
Aurten Bai-Zornotzako Barnetegia	5.033,40
Juan Mateo Zabala euskaltegia	2.743,20
Bilbo Zaharra euskaltegia	3.683,15
Ulibarri euskaltegia	5.375,30
Jose Antonio Agirre euskaltegia	4,30
Bilboko Labayru-Inst. Diocesano EJ Labayru Bilbao	4.257,88
Euskal Irakaslegoa - Deustu unibert.	4.730,40